

Funtsezko elkarteak

Gure bezero potentzialak familiak eta jende adindua izango litzateke. Gure produktua guztientzako izango litzateke baina uste dugu bezero garrantzitsuenak eta gehienak pertsona helduak izango direla, bere adinarengatik pilula gehiago hartzen dituztelako.



Kontaktuan jarriko ginateke Bilboko botikekin bezeroei erakusteko pilulak hartzera joaten direnean. Botika horiek trukean zerbait eskatuko dutenez gero, produktua saltzeagatik negoziatuko genuke zenbateko etekina izango lukete haiek. 35 eurotan salduko bagenu, 5 euro, hau da, %14aren etekina haietzako izango litzateke. Botiketako langileek saldu ahal dizkiete bezeroei haien pilulak modu eroso batean hartzeko.



Beste funtsezko elkarte batzuk fabrikatzailea eta hornitzailea izango dira. Alde batetik, kalitatezko materiala erabiltzea eskatuko diogu hornitzaileari; gure produktua iraunkorra izan dadin. Beste alde batetik, akordio batera ailegatuko ginateke, diru truke, Euskal Herriko Unibertsitatearekin gure kaxa haiek fabrikatzeko, ingeniariak graduan hain zuzen ere. Horrela ikasleek praktikak eginez fabrikatu ahal izango lituzkete kuxak. Guretzako merkeagoa izango da eta.

Beste aldetik, botiketara eramateko guk eramango genituzke kutxak, gure auto batekin, beraz, ez genuke kontratatu beharko garraio enpresarik pilula kutxak eramateko.

